

## OLERKIAK

I

Ura, lehen ispilua.  
Dardara bat ur beltzean.  
Ilargiak pa uraren haragiari:  
ispiluaren metamorfosia.  
Itzalak ihesi doaz; erloju bat jaio da.  
Ama ura, menstruazio-odola.

II

Maitatzeko dauden era guztietatik,  
zenbakaitzak eta bitxiak denak,  
hauxe hautatzen dut: orakulurik ez duena,  
ura.

III

Hodeia, izotza, xirripa, turrusta, olatua, lainoa, istila.  
Uraren hizkuntza.  
Ondoa, ihia, goroldioa, iratzea, lorea, nenufarea, alga.  
Uraren hizkimizkia.  
Larba, txoria, tximeleta, inurria, otsoa, marraxoa, gu.  
Uraren ideia.  
Odola, gernua, hazia, amniosoa, izerdia, malkoa, adurra.  
Uraren hieroglifoa.

IV

Amodioaren jokoan jokatzea:  
ur ertzean etzatea, beso betean;  
barre egitea, begiak itxita.  
Maitatzea, hitz hori ahoskatzeke.

V

Emakume bat ortozik arrakala artean.  
 Haurra lotan bizkarrean, euliak begietan  
 Emakumea ezagun ez duen jainko batekin berbetan.  
 Ahots batek diotso: "Txit maite zaitut, benetan".  
 Ur eztarria. Ur hestea.  
 Argazki-oinak. Errepikapenak.

VI

Urak neure izenetik hots egiten dit,  
 bere bularrak eskaintzen.  
 Arantza bat da egarri hau.  
 Nire kriseiluarekin ahotsak argitzen ditut;  
 nire baratzean oroimena erretratatzeko.  
 Ez dira uretan idaztekoak nire hitzak.  
 Ura lagun bataio honetan; ni haren lamina.  
 Urari nire egarria.

VII

Beldur bazara, begiratu zure uharteari.  
 Ez du ezagutzen sarerik.  
 Harkaitzak aldarazten dituzte urek,  
 labirinto opakuak ere higitzen.

Miren Agur Meabe